**EUSKARAREN II. PLAN ESTRATEGIKOA (2020-2027) IDAZTEKO AHOLKULARITZAREN ETA LAGUNTZA TEKNIKOAREN KONTRATAZIOA ARAUTZEN DUTEN AGIRIAK**

## 1. GAIA

Dokumentu honen xedea da arautzea Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027)

idazteko aholkularitza eta laguntza tekniko espezializatuaren zerbitzua kontratatzean kontuan hartu beharreko alderdi juridiko, administratibo, ekonomiko eta teknikoen gaineko eskubideak eta betebeharrak zehazten dituzten itun eta baldintzak.

Dokumentu hau zerbitzu kontratutzat jotzen da eta ematen diren prestazioak "85312320: aholkularitza zerbitzuak" kategoriakoak dira, Europako Batzordearen 213/2008 (EE) Erregelamenduan ezarritako CPV sailkapenaren arabera.

Nafarroako Parte hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22koa 12/2019 Foru Legearen arabera, Nafarroako Gobernuaren onespena behar duen planak edo programak edo plangintza publikoko beste edozein elementu prestatu, aldatu edo berrikusi behar den guztietan, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behartua dago, jendaurrean jartzeaz gainera, eztabaida prozesu bat edo, hala badagokio, kontsulta bat egitera nahitaez. Euskararen II. Plan Estrategikoa (2020-2027) idazteko prozesuaren berri emango da Nafarroako Gobernuaren parte hartzearen gune digitalean.

Kontratua administratiboa izanen da, kontratugileak honako hauen mende geldituko dira: baldintza agiri honek ezartzen duena, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legea, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontratazioa arautzen duten beste xedapen guztiak.

Urte anitzeko kontratua da, 2020an hasi eta 2021ean bukatuko dena.

Lote bakarra eskaintzen da; izan ere, egin beharreko lanak prozesu beraren parte dira, eta lotura banaezina dago haien artean.

**Egin beharreko lanen edukia.**

Lanen xedea izanen da Nafarroako Gobernuaren Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroa idaztea. Agiri hori idazteko prozesuan aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea izanen da helburua. Honako hauek sartzen dira prozesu horretan: I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa aztertzea, II. Plana idazteko abiaburuaren diagnostikoa definitzea, parte hartzeko prozesua diseinatzea, eta eragile sozial eta administratiboekin egin beharreko prozesu horren dinamizazioa, jarraipena, dokumentazioa eta emaitzen analisia egitea. Prozesu hori oinarri hartuta, 2020-2027

aldirako Euskararen II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa idatziko da, zeina publikoki aurkeztu eta parte hartzera irekiko den Gobernu Irekiaren atarian. Parte hartze horretatik abiatuz II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroa eginen da eta honetan 2021erako ekintza plan bat sartuko da, eta, horrez gain, jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egiteko plangintza bat eta komunikazio estrategiarako proposamen bat.

II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa 2020ko abenduaren 31rako aurkeztu beharko da.

II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroa; jarraipena, kontrola eta ebaluazioa egiteko plangintza; 2021erako ekintza plana eta komunikazio estrategiarako proposamena, 2021eko martxoaren 31rako aurkeztu beharko dira.

## 2. KONTRATAZIO ORGANOA ETA UNITATE KUDEATZAILEA

Kontratazio organoa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailea da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren izenean eta hura ordezkatuz. Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua izanen da organo kudeatzailea.

## 3. ADJUDIKAZIO PROZEDURA

Agiri honen xede den kontratua adjudikatuko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritakoaren arabera, prozedura irekia erabiliz. Espedientea tramitazio arruntekoa da.

## 4. IRAUPENA

Kontratua egikaritzeko epea sinatzen den egunaren biharamunean hasiko da eta 2021eko apirilaren 30ean amaituko da.

## 5. LIZITAZIOAREN GEHIENEKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 24.824,09 eurokoa da, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 42. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

Lizitaziorako gehieneko aurrekontua 30.037,15 eurokoa izanen da (BEZ barne). 15.000 euro 2020ko gastuen aurrekontuko "*Azterlan eta proiektu soziolinguistikoak*" izeneko B30002 B3200 2276 334100 partidari egotziko zaizkio eta 15.000 euro, 2021eko

gastuen aurrekontuetan horretarako sortuko den diru-sailaren kargura. Partida hori lehen aipatutako 2020ko gastuen aurrekontuaren diru-sailaren baliokidea izanen da, betiere kreditu nahikoa eta egokia badago.

## 6. LIZITATZAILEEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Hautapen prozesuan parte hartzen ahalko dute jardute-gaitasun osoa duten pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerritarrek, kontratatzeko debekurik edo bateraezintasunik ez badute eta interes gatazkan ez badaude. Betekizun horiek guztiak eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den unean bete behar dira.

Euskarabideak kontratuak egiten ahalko ditu aldi baterako enpresa elkarteekin edo taldean parte hartzen duten pertsonekin, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan xedatzen diren baldintzetan. Taldeko parte hartze hori agiri pribatu baten bidez egiaztatu beharko da, non lizitatzaileek batera aurkeztu nahi dutela adierazi behar baitute, baita bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu ere; azken horrek ahalmenak izanen ditu parte hartzaile guztien eskubideak erabiltzeko eta kontratutik eratorritako betebeharrak betetzeko, hura amaitu arte.

Aldi baterako elkarteetan edo batera parte hartzen duten lizitatzaileek erantzukizun solidarioa izanen dute.

Lizitazio eskaintza bateratua aurkezten duten enpresek ezin izanen dituzte bakarkako proposamenak aurkeztu lote berean, ez eta aldi baterako beste elkarte batean sartuta edo beste enpresa batekin elkartuta ere. Debeku hori hausten bada, ez da onartuko enpresa lizitatzaile arau hausleak sinatzen duen eskaintzarik.

Lizitazioaren ondorioetarako, aldi baterako enpresa elkartean aurkezten diren enpresak eta batera parte hartzen duten pertsonek adierazi beharko dituzte batasun horiek osatzen dituzten kideen izenak eta inguruabarrak, baita kide bakoitzaren partaidetza ere, eta adierazi beharko dute konpromisoa hartzen dutela aldi baterako elkarte gisara formalki eratzeko kontratuaren adjudikaziodun izatekotan. Kide bakoitzak egiaztatu beharko du jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala dituela, agiri honetan ezarritakoaren arabera.

Baldintza horiek egiaztatuko dira lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpenarekin. Adierazpen hori agiri honen I. eranskinean dago.

## 7. KAUDIMEN EKONOMIKO ETA FINANTZARIOA

Lizitatzaileak kontratua egikaritzeko kaudimen ekonomiko eta finantzario aski duela frogatu beharko du, hau da, enpresak ekonomia eta finantza egoera egokia duela, halakoa non izaera horietako ezein gorabeherak ez duen arriskuan jarriko kontratua behar bezala egikaritzea.

Kontratu honetan, egiaztapen hori eginen da kontratuaren xedearen antzekoa edo goragokoa den jarduera-arloko negozio bolumenari buruzko azken hiru ekitaldietako (2017-2018-2019) adierazpenaren bidez. Aipaturiko adierazpena I. eranskinean txertatuko da.

Kontratuaren indarraldi osoan eutsi beharko zaio eskatutako kaudimen ekonomikoari.

Baterako parte hartzeetan, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa batera aurkezten diren enpresetako edozeinek aurkezten ahalko du, bai eta batasuna osatzen duten kide guztiak pilatuz ere.

## 8. KAUDIMEN TEKNIKOA

Lizitatzaileak kaudimen teknikoa duela frogatu beharko du, hau da, kontratua behar bezala egikaritzeko gaitasun tekniko edo profesionala duela.

Kaudimena frogatzeko, 2017an, 2018an eta 2019an emandako zerbitzu nagusien zerrenda aurkeztu behar da, haien zenbatekoa, data eta hartzaile publikoa edo pribatua adieraziz. Zerrendarekin batera, zerbitzuen hartzaileek emandako ziurtagiriak ekarriko dira, zerbitzuak ongi exekutatu zirela egiaztatzen dutenak.

Ziurtapen hori ez da beharrezkoa izanen Nafarroako Gobernuari emandako laguntza zerbitzuen kasuan; halakoetan aski izanen da, besterik gabe, entitate horrendako egindako zerbitzuak aipatzea.

## 9. EGIKARITZEKO GUTXIENEKO BALIABIDEAK

Kontratua egikaritzeko ardura duen taldean, gutxienez, hiru pertsona egonen dira. Denak elebidunak izanen dira, gaitasun osoa izanen dute euskaraz (C1/EGA titulu bidez egiaztatua) eta gaztelaniaz, ahoz nahiz idatziz, eta unibertsitateko titulua izanen dute. Horietako bat proiektuaren gidaritza lanetan arituko da. Pertsona hori arduratuko da bai proiektuaren koordinazioaz bai kontratua eta gauzatu beharreko lanak zuzen egikaritzeko egin beharreko eginkizun eta prozesuak zuzendu, antolatu eta kontrolatzeaz. Ardura zuzena izanen du kontratua egikaritzean eta hura izanen da solaskide nagusia Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Adjudikazioduna kontratua egikaritzeko behar diren eginkizun guztiez arduratuko da, bere langileen bitartez edo lanak azpikontratatuz, zuzenean bere gain hartu ezin baditu, eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren jarraibideei kasu egin beharko die betiere.

Covid-19ak eragindako pandemiak sortutako egoera dela eta, osasun publikoaren eskakizunak egon daitezkeela kontuan izanik, eta horiek Euskarabidearekin egin behar den koordinazio lana eta prozesu parte-hartzailea bera egokitzera behartu dezaketela jakinik, enpresa adjudikaziodunak koordinazioa eta parte-hartzea telematikoki bermatzeko baliabideak izan behar ditu.

## 10. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

### 10.1. TOKIA ETA EPEA

Proposamenak Lizitazio Elektronikoaren Nafarroako Plataformaren (hemendik aitzina, PLENA) bidez soilik aurkezten ahalko dira; era berean, PLENAren bitartez eginen dira komunikazio oro eta interesdunek egin beharreko gainerako tramiteak.

Kontratazioaren Atarian argitaratutako lizitazioaren iragarkiaren bidez jotzen ahalko da PLENAra; handik, interesa duen edozein pertsonak deskargatzen ahalko du mahaigainerako aplikazioa. Horren bidez, zifratze mekanismo estandarrak baliatuz, eskaintzak prestatzen eta aurkezten ahal dira, gutun-azal digitalaren bidez, bai eta biltegi seguruan gorde ere.

Deskargatu ondotik, aplikazio hori baliozkoa izanen da PLENAren bitartez beste edozein lizitazio egiteko.

Eskaintzak lizitazioa eginen duenaren mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztuta, biltegi seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezteko epea 21 egunekoa izanen da, iragarkia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen den egunetik hasita.

Gutun-azalak irekitzeko unean epez kanpoko aurkezpen bat hauteman bada eta aurkezpen horren gaineko arrastoren bat jaso bada, arrastoa baliozkotu eginen da; arrastoak aurkezpenarekin bat egiten badu eta eskaintza, halaber, luzatutako 24 orduko epearen barnean jaso bada, eskaintza baliozkotzat jo eta ireki eginen da.

Aitzitik, arrastoak bat egiten ez badu, edo eskaintza jaso bada luzatutako 24 orduko epetik kanpo, eskaintza baztertuko da eta ez da inoiz ere haren edukia irekiko.

Eskaintza epez kanpo aurkeztu bada eta enpresa edo entitate lizitatzaileak esaten badu eskaintza aurkeztean arazo teknikoak zeudela, eskaintza aurkezteko unean plataforman arazo teknikorik egon zen egiaztatuko da. Plataformaren funtzionamendu arruntean gorabehera teknikoren bat gertatu bazen bakarrik onartuko da aurkeztutako eskaintza. Lizitatzailearen ezagutza ezak edo PLENArekin ikustekorik ez duten arazo teknikoek ez dute justifikatuko eskaintza denboraz kanpo aurkeztea, eta lizitazio prozeduratik baztertzea ekarriko dute; gauza bera gertatuko da eskaintzak ezarritako bidea ez den batetik aurkeztuz gero.

**10.2. PROPOSAMENEN FORMA ETA EDUKIA**

Enpresa lizitatzaileek Lizitazio Elektronikoaren Plataformak eskatzen dituen tramite eta inprimaki guztiak beteko dituzte eskaintzak aurkezteko.

Eskaintzak enpresa lizitatzailearen mahaigainean zifratzen dira zifratzeko mekanismo estandarrak erabiliz. Behin aurkeztu ondoren biltegi seguruan gordetzen dira.

Eskaintzak aurkezten edo/eta sinatzen dituzten pertsona fisikoak behar bezala identifikaturik egon beharko dira, eta ordezkari sinatzaileen kasuan, Lizitazioaren Plataforman jarduteko eta aritzeko baimena emanen dien ahalmen aski izan beharko dute.

Onartutako sinadura elektronikoarekin sinatuko da eskaintza. Sinadura elektroniko hori ziurtapen zerbitzuen emaile batek baliozkotasunez emana izanen da, eta agiriaren, eskaintzaren eta hari lotutako dokumentu guztien identitatea eta osotasuna bermatuko ditu, Kontratazio publiko elektronikoaren sinadura elektronikoari eta gainerako xedapenei buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legean xedatutakoaren arabera.

Eskaintza elektronikoari eransten zaion banakako fitxategi bakoitzak 50 MB-ko tamaina izanen du, gehienez ere. Eskaintzaren tamaina osoa, barneko dokumentu guztiak barne, 100 MB-ko izanen da, gehienez ere. Plataformak ez du mugarik jartzen eskaintza bati erants dakiokeen fitxategi kopuruan.

Erabili ohi diren formatuak onartuko ditu plataformak eskaintzaren aurkezpenean eransten diren dokumentuendako (doc, docx, xls, xlsx, ppt, pptx, rtf, sxw, abw, pdf, jpg, bmp, tiff, tif, odt, ods, odp, odi, dwg, zip); artxibo konprimitu batean (ZIP) sartuz eransten ahalko dira bestelako formatuak dituzten artxiboak.

Plataformako formularioetan sartutako balio objektiboen eta irizpide bakoitzari eusten dioten dokumentu atxikien artean desadostasunak badaude, entitate edo enpresa

lizitatzaileak elektronikoki izenpetutako dokumentu eta eranskinek izanen dute lehentasuna.

Eskaintza nork egin duen alde batera utzita, eskaintza elektronikoa sinatu beharko du enpresaren edo entitatearen izenean eta hura ordezkatuz kontratatzeko ahalorde askietsia duen pertsonak. Beraz, bi aukera daude:

- Edo eskaintza osoa sinatzen da elektronikoki enpresaren edo entitatearen ahaldunaren ziurtagiriarekin. Hala egiten bada, aplikazioaren formularioetan sartutako informazio ekonomikoa baliozkoa izanen litzateke.
- Edo eskaintza legezko pertsona baliozko baten ziurtagiriarekin sinatzen da (pertsona fisiko edo juridiko ordezkariaren baliozko ziurtagiria) eta ahaldunak edo ahaldunek sinatutako eskaintzaren dokumentu elektronikoak erantsiko dira.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar enpresa lizitatzaileak agiri honetako klausulak onartzea salbuespen edo erreserbarik gabe, bai eta erantzukizunpeko adierazpena ere, bertan adierazteko aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla eta lanen kontrataziorako eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

**Comentado [A1]:** Formulazioa aldatuko nuke:
-Gaztelaniako bertsioan: sin salvedad o reserva alguna.
-Euskarazkoan: salbuespen edo erreserbarik gabe

Enpresa lizitatzaileak eskaintza ixten duenean, haren edukiaren arrasto bat –laburpen kriptografikoa– sortuko da eta eskaintza aurkeztu duela egiaztaturik geldituko da. Lizitaziorako plataforman (PLENA) eskaintza aurkeztean akatsik eginez gero, 24 orduko epea izanen da eskaintza osoa hartzeko, PLENAren bitartez, eta aurkezpena osatutzat hartu ahal izateko. Horretarako baldintza izanen da posta elektronikoaren bidez arrastoa igorri izana kontratazio organoari, gonbidapenean harremanetarako ezarritako helbidera, eskaintzak aurkezteko epearen barnean.

Beharkizun horiek bete ezean, ez da onartuko lizitazioaren iragarkian ezarritako epetik kanpo jasotzen den parte hartzeko eskaerarik.

Agiriak zer ekipotatik aurkeztu behar diren, beharrezkoa da ekipo horrek gehienez ere 5 minutuko desfasea izatea Nafarroako Gobernuaren zerbitzariaren orduarekin.

**Comentado [A2]:** Formulazioa aldatuko nuke:
Gaztelaniaz: Es necesario que la hora del equipo desde el que se vaya a realizar la presentación coincida con un margen máximo de desfase de 5 minutos, con la hora del servidor de Gobierno de Navarra.
- Euskaraz: beharrezkoa da aurkezpena eginen den ekipoaren orduak Nafarroako Gobernuko zerbitzariaren orduarekin 5 minutuko desfasea izatea, gehienez ere.

Nafarroako Gobernuko zerbitzariek denbora unibertsal koordinatua (UTC) baliatzen dute, hau da, erreferentziako nazioarteko laborategiek mantentzen duten denbora eskala unibertsala, honako zehaztasun hau duena: +/- 1 segundo. Hori izanen da, beraz, zerbitzu elektronikoen ordu ofiziala.

- Lehen mailako iturria: hora.roa.es (Armadaren Errege Institutua eta Behatokia: bi zerbitzari San Fernandon, Cadizen, eta hirugarren bat Madrilen)
- Bigarren mailako iturriak:
    - canon.inria.fr , INRIA, Paris
    - i2t15.i2t.ehu.es, EHU

Lizitazio elektronikoaren plataforman eskaintza honetarako ezarritako egituraren arabera aurkeztuko dira lizitatzaileen proposamenak, eta gutun-azalak hiru izanen dira, honela identifikatuta:

- A gutun-azala: Dokumentazio orokorra.
- B gutun-azala: Irizpide kualitatiboak
- C gutun-azala: Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak.

Gutun-azal bakoitzean honako dokumentu hauei dagozkien artxibo elektronikoak sartuko dira:

A gutun-azala: “Dokumentazio orokorra”

Lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena, honako hauek frogatzen dituena: administrazioarekin kontratatzeko beharkizun orokorrak betetzen direla, nortasuna, gaitasuna eta kaudimena. Horretarako, I. eranskinean ezarritako eredua erabiliko da, eta agiri honen 8. atalean eskaturiko kaudimen teknikoko egiaztagiriak aurkeztuko dira horrekin batera.

Aipaturiko adierazpenean, nahitaez paratu beharko da helbide elektroniko bat, jakinarazpen telematikoak egiteko.

- Batera parte hartzen duten pertsonen kasuan, zenbat pertsona hainbat adierazpen aurkeztu beharko dira. Gainera, agiri pribatu bat gehituko da, non lizitatzaileek adierazi behar baitute batera aurkeztu nahi dutela, bakoitzaren partaidetza portzentajea zehaztu, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu, kontratuak azkendu arte sortzen dituen eskubideak erabili eta eginbeharrak betetzeko ahalmenak izanen dituena. Lehiatzen diren enpresek eta ahaldunak sinatu beharko dute agiri hori.
- Azpikontratazioetan, lizitatzaileak erantzukizunpeko adierazpenean jaso beharko du, batetik, azpikontratisten zerrenda eta, bestetik, baduela agiri bat egiaztatzen duena konpromiso formal bat dagoela enpresa azpikontratista kontratua egikaritzera behartzeko ahalmena duten pertsonekin.

B gutun-azala: “Irizpide kualitatiboak”

Gutun-azal honetan, lizitatzaileak aurkezten duen dokumentazio tekniko guztia egonen da, Kontratuei buruzko Foru Legearen 97. artikuluarekin bat. Irizpide kualitatiboak baloratzeko eta puntuatzeko erabiliko da dokumentazio hori, eta hartan azaldu beharko da zer prestazio egin beharko diren kontratua egoki egikaritzeko.

Aurkezten diren proposamenetan sartuko dira enpresako lantaldea osatzen duten pertsonen zerrenda, profila, euskarazko hizkuntza-gaitasuna eta curriculuma, baita esku artean dugun gaiaren gainean duten eskarmentua eta ezagutza ere.

Proposamenetan honako hau hartu beharko da kontuan:

- Arlo horretan indarra duten legeak eta arauak, eta bereziki honako hauek: Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna; Europako Kontseiluko Ministroen Batzordearen gomendioak eta adituen batzordearen txostenak; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea; azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretua, euskararen erabilera arautzen duena Nafarroako administrazio publikoetan, beren erakunde publikoetan eta menpeko dituzten zuzenbide publikoko entitateetan; eta azaroaren 6ko 303/2019 Foru Dekretua, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena.
- 2019-2023 legegintzaldirako Nafarroako Gobernuaren akordio programatikoan hizkuntza politikari buruz jasotakoa.
- *Euskararen I. Plan Estrategikoa (2016-2019)* eta haren ebaluazioa.
- Euskarak Nafarroan duen egoerari buruzko datu soziolinguistiko eguneratuak.

Proposamenak lehenbiziko puntuan definituriko helburuei egokituko zaizkie, eta hurrengo ataletan ezartzen diren baldintza teknikoak beteko dituzte.

a) Euskararen II. Plan Estrategikoak jarraipena emanen dio 2016-2019 aldirako I. Plan Estrategikoari. Hortaz, zirriborroak oinarri izanen du I. Planaren ebaluazioa, eta erreferentziatzat izanen du hartan Nafarroako Gobernuak hizkuntza politikarako definituriko eredu estrategikoa. Halaber, Euskararen II. Plan Estrategikoaren abiaburua izanen da euskarak 2020an duen egoera, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak emanen dituen datu soziolinguistikoak erabiliz zehaztuko dena.

b) Euskararen II. Plan Estrategikoa parte hartzeko prozesu baten ondorio izanen da. Enpresa adjudikaziodunaren aholkularitzak eta laguntzak honako ekintza hauek bilduko ditu, gutxienez:

- Parte hartzeko prozesua diseinatzen laguntzea.
- Zabaltzea eta parte hartzeko interesa izan dezaketenei deialdia egitea.
- Saio mota bakoitzerako materialak prestatzea.
- Saioak, aurrez aurrekoak nahiz telematikoak izan, dinamizatzea.
- Espazio birtualak dinamizatzea, halakorik bada.

- Errelatore lanak.
- Agiriak prestatzeko lanak.
- Zabaltzeko lanak.
- Parte hartzeko prozesuaren memoria prestatzea.
- Euskararen II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa prestatzea.
- Hasierako zirriborroa eztabaidara eramatea, ekarpenak txertatzea eta zirriborroaren azken agiria prestatzea.
- Euskarabidearekin etengabe koordinatzea.

Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroaren prestaketan pertsonek eta entitate publiko eta pribatuek parte hartuko dute, haien ekarpena garrantzitsutzat hartzen bada aztertu beharreko alorren kariaz. Adjudikaziodunak, Euskarabidearekin lankidetzan, mapa bat prestatuko du prozesuan interesa duten gizarte eragileak identifikatzeko. Gutxienez ere honako hauek sartuko dira:

- Administrazio publikoen kudeaketan ardurak dituztenak, eta administrazio horien zerbitzuko enplegatuak.
- Euskara teknikariak.
- Euskararen Nafar Kontseilua osatzen duten pertsonak.
- Euskararekin edo euskaraz lan egiten duten entitateak, jarduera horietako espezialistak, eta euskararen gizarte egoeran interesa duten gainerako entitateak.
- Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko langileak.

c) Parte hartzeko prozesuaren egitura. Parte hartzeko prozesua bi fase bereizitan eginen da: lehenbizikoaren xedea Euskararen II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa prestatzea izanen da, eta bigarrenarena, zirriborro hori eztabaidara eramatea eta behin betiko zirriborroa sortzea.

Parte hartzeko aldiaren lehenengo fasea lan-mahaien bidez antolatuko da. Lan-mahai horietan, Euskararen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa hartuko da oinarri, eta diagnostikoa definituko da, AMIA analisi bat eginen da eta ekarpenak jasoko dira II. Plan Estrategikoaren hasierako zirriborroa prestatzeko. Enpresak proposamen osoa aurkeztu beharko du lan-mahaien antolaketaz: faseak, saio kopurua, partaideen gaineko proposamena, saioen gidoia, dinamizazio metodologia, aktak eta abar.

Parte hartzeko prozesuaren lehen fasean, mahai tekniko bakoitzak bi saio eginen ditu gutxienez: lehenbizikoan, I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa aztertuko da eta AMIA

analisia eginen da, diagnostikoa definitzeko; bigarrenean, ekarpen zehatzak bilduko dira II. Plan Estrategikora begira.

Prozesu parte hartzailearen bigarren fasean, hasierako zirriborroaren kontrastea eta aurkezpen publikoa eginen dira Gobernu Irekiaren atarian. Bigarren fasean bildutako ekarpenak aztertu ondoren eta, egoki ikusiz gero, jaso ondoren, II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroa eginen da. Bigarren fasean, amaierako itzulera-jardunaldi bat egin beharko da, parte hartzeko prozesuan zehar parte-hartzaileek egindako proposamenen gainean hartutako erabakiak azaltzeko.

Enpresa adjudikaziodunak Euskarabideko talde teknikoarekin adostu beharko du parte hartzeko prozesuaren azken definizioa. Parte hartzeko prozesuaren egituran agerian gelditu beharko dira honako fase hauek: informazioa, eztabaida, itzulera eta ebaluazioa. Gainera, mekanismoak ezarri beharko ditu proposaturiko prozesuan genero ikuspegia eta inklusibitatea txertatzeko.

d) Lan esparruak. Parte hartze prozesuko lan ildoak ondoren azalduko direnak izanen dira gutxienez eta zehaztutako lan ildo bakoitzak lan-mahai bat bederen izanen du.

1. Euskararen gizarte erabilera. Hizkuntzaren erabilera sustatzea gizarteko esparru guztietan (kultura, kirola, aisialdia, arlo sozioekonomikoa, IKTak eta sare sozialak...); haurren eta gazteen artean bereziki euskararen erabilera sustatzea; euskararen jakite maila altua eta erabilera orokortua duten udalerrien berariazkotasuna (arnasguneak), baita euskararen gizarte bizkortasun txikia dutenena ere; euskarazko komunikabideak eta hizkuntza horren erabilera hedabide nagusietan; euskararen erabilera irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeetan; euskarazko kulturaren kontsumoa; eta kultur ondare ukiezina euskaraz; besteak beste.
2. Euskal hiztun berriak. Euskararen irakaskuntza eta euskarazko irakaskuntza hezkuntza sisteman, haur eskoletatik hasi eta unibertsitateko irakaskuntzara arte; helduei zuzenduriko euskararen irakaskuntza; ahozko erabilera finkatzeko estrategiak, hizkuntzaren ikaskuntzaren indargarri gisa; euskararen familiako transmisioa eta haurren hizkuntza sozializazioa; eta migratzaileen harrera linguistikoko programak; besteak beste.
3. Euskara zerbitzu publikoetan. Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea; 103/2017 Foru Dekretuaren garapena; departamentuetako hizkuntza planak; Foru administrazioaren gaikuntza hobetzea zerbitzuak euskaraz emateko; itzulpena eta laguntza teknikoa, zerbitzua euskaraz emateko eta toponimia ofiziala erabiltzeko; Nafarroako administrazio publikoetako langileak gaitzea

euskarari dagokionez; eta Nafarroako toki entitateekin eta Estatuko administrazioarekin lankidetzan aritzea; besteak beste.

4. Euskararen prestigioa eta erakargarritasuna. Euskarari dagokionez, instituzioek duten komunikazioa, diskurtsoa eta irudia. Hizkuntzaren gizarte erabileran positiboak diren erreferenteak eta jardunbide egokiak ikusaraztea. Euskal hiztunen kontzientziazioa eta ahalduntzea. Erdaldunak sentsibilizatzea eta euskarara hurbiltzea. Nafarroan euskarari buruzko adostasun soziala; besteak beste. Hizkuntza paisaian euskararen presentzia handitzea; besteak beste.
5. Euskara, ekonomia eragile. Euskarak hainbat esparrutan ekonomia eragile izateko duen ahalmena. Euskara, produktu eta zerbitzuen balio erantsia. Euskara IKTetan; besteak beste.

e) Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroak hizkuntza politikan 2020-2027 aldirako izanen diren ildo estrategikoak jasoko ditu, baita helburu orokor eta espezifikoak ere, urteko jarduera-planak garatu ahal izateko.

Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroak 2021erako ekintza plan bat izanen du bai eta horren ekintzen exekuzio kronograma osoa ere, ekimen guztiak haien lehenespena eta planifikazioa, bilduko dituena,.

Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroak jarduketa lerro estrategiko nagusiak jasoko ditu gutxienez, eta horiek xedeetan, ekintza zehatzetan eta ebaluazioaren adierazleetan zehaztuko dira.

Euskararen II. Plan Estrategikoaren behin betiko zirriborroak urtean behin edo bitan ebaluatzeko eredu bat izanen du, plana era malguan garatzea ahalbidetzeko. Ebaluatzeko eredu hori urteko ekintza planetan zehaztuko da.

Jarraipenaren eta kontrolaren gainean, oinarrizko prozedura eta bitartekoak zehaztuko dira planaren garapena eta jarduketen gauzatze egokia kontrolatu ahal izateko eta, behar izanez gero, desbideratzeak zuzentzeko (mugarriak, entregatzekoak, batzordeak, jarraipenari buruzko txostenak eta abar).

Lana garatzean, eta kontratuaren xede diren agiriak zehaztean, Euskarabideak ezartzen dituen irizpide eta jarraibideak beteko dira, hark eginen baitu plana gauzatzearen gaineko jarraipena. Hori betetzeko, lanak koordinatzeko eta jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen diren bilerak eginen dira, betiere, hauek bederen:

- Bilera bat lanak gauzatzeko lehenbiziko astean, ezartzeko zeintzuk izanen diren proiektuaren oinarrizko ezaugarriak, Euskarabideak eman ditzan hasierako diagnostikorako behar diren datu eta elementuak, eta mapa bat prestatzeko,

lankidetzan, parte hartzeko interesa duten gizarte eragileak identifikatzeko eta gonbidatzeko.

- Beste bilera bat planaren hasierako zirriborroa prestatu eta ondoan, ordura arte egin diren jarduketak baloratzeko eta eztabaidatzeko prozesua nola eginen den zehazteko.

Bilerak bideokonferentzia bidez egiten ahalko dira eta horretarako, enpresak hori ahalbidetzen duten baliabide telematikoak eduki beharko ditu.

Ebaluazioari dagokionez, Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroa prestatu bitartean, “ebaluagarritasun azterketa” eginen zaio; gisa honetara bermatu ahal izanen da betetzen dituela gero ebaluatu ahal izateko baldintzak eta irizpideak. Ebaluazio horrek neurtuko du politika publiko honen garapenak zer eragin izan duen, benetan, Nafarroako herritarren artean eta Foru Administrazioan, ikusirik hasiera batean definituriko xede estrategikoak zenbateraino bete diren.

f) Euskararen II. Plan Estrategikoaren zirriborroak komunikazio estrategia baterako proposamena bilduko du; horren bidez, koherentzia emanen zaio Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikari, kontuan harturik Nafarroako gizartean dauden egoera soziolinguistiko ezberdinak eta euskararen gaineko pertzepzioak.

g) 2021erako ekintza planak ekintza zehatzak definituko ditu ildo estrategiko bakoitzerako, horiek garatu eta gauzatzean ahalbidetu dadin finkatutako helburuak betetzea.

Zehazten diren ekintzak banakako fitxa batean identifikatuko dira; hartan, honako hauek jasoko dira, gutxienez:

- Ezarri beharreko ekintza edo neurri bakoitzaren definizioa.
- Horiek gauzatzeko epeak zehaztea.
- Xedeak eta ebaluaziorako adierazleak ekintza bakoitzean.
- Arduraduna nor izanen den.
- Ekintza bakoitzean behar diren baliabideen identifikazioa eta kuantifikazioa. Programazio ekonomikoa edo aurrekontua.

h) Ondoriozko produktuak. Prestaketako eta parte hartzeko prozesuen bukaeran, enpresak lan bakoitzari dagozkion agiri eta entregatzekoak aurkeztu beharko ditu.

Honako produktu hauek aurkeztu beharko dira:

- Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2020-2027) hasierako zirriborroa [2020ko abenduaren 31rako aurkeztu beharko da].

- Parte hartzeko prozesuaren gaineko txostena. Saio presentzialetan egon direnei buruzko datuak jaso beharko ditu, sexuaren arabera bereizirik, eta egindako ebaluazioari buruzko datuak ere bai. Halaber, lan-mahaien emaitzak jasoko ditu (gutxienez 5 mahai izanen dira); proposamenak hitzez hitz bildu beharrean, edukien garapena eta analisia jasoko ditu.
- Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2020-2027) behin betiko zirriborroaren agiri osoa.
- Euskararen II. Plan Estrategikoaren (2020-2027) behin betiko zirriborroaren laburpen agiria.
- Komunikazio estrategiaren agiria.
- 2021erako ekintza planaren agiria.

Dokumentazioa formatu elektronikoan aurkeztuko da, baita paperean ere dokumentazio guztiaren ale bat.

Dokumentazioa euskaraz eta gaztelaniaz aurkeztuko da, bakoitza bere euskarrian. Dokumentazio horren ele biko idazketarako ordenagailuz lagundutako itzulpen-tresnaren bat erabiliz gero, tresna horren emaitza diren kasuan kasuko dokumentu ele bikoak entregatuko dira, xliff edo bak formatuan.

Dokumentuak idaztean hizkera ez-sexista erabiliko da.

Pertsona edo enpresa adjudikaziodunak espresuki onartzen du egindako lan guztien dokumentuak eta emaitzak eta haien jabetza intelektuala Nafarroako Gobernuaren jabetza esklusiboa direla, eta osorik edo partez erreproduzitu edo zabaldu ahal izanen dituela. Orobat, enpresak uko egin beharko die kontzeptu horien gaineko eskubide guztiei, eta soil-soilik erabiltzen ahalko ditu, etorkizuneko lanen erreferentziatako, Nafarroako Gobernuaren berariazko baimena badu.

i) Eskaintzak nola aurkeztu. Aurkeztutako eskaintzen balorazioa errazteko, aurkibide honen arabera egituratu beharko dira:

- Lantaldearen esperientzia. Lantaldearen deskribapen laburra: lantaldeko kideen zerrenda, profila eta curriculuma, gaiari buruzko esperientzia eta ezagutza zehazten dituena.
- Eskaintzen dituen zerbitzuak:
    - Aurkeztutako proposamenaren xedeen eta norainokoaren definizio laburra.

- Egin beharreko lanen eta zerbitzuen planteamendua, agiri honen puntuetan eskatutakoaren arabera, eta honako hauek, gutxienez: ebaluazio eta diagnostikorako prozesuaren definizioa, parte hartzeko prozesuaren kudeaketa (lan-mahaien kopurua) eta erabilitako metodologiak, emaitzen analisia, II. Plan Estrategikoaren zirriborroaren prestaketa, 2021erako ekintza plana eta komunikazio estrategiarako proposamena.
- Produktuak: horren ondoriozko produktu-agirien deskribapena (hemen zehaztutakoaren araberakoa). Haien edukiak, egitura, formatua eta abar aipatuko dira.
- Osorik eta zehatz-mehatz bildu beharko du enpresaren proposamen teknikoa.

- Proiektuaren antolaketa eta kudeaketa:
  - Proiektuaren jarraipenerako eta kontrolerako prozedurak: lanak prestatu bitartean, jarraipena eta kontrola egiteko ezartzen diren prozedura oinarrizkoen deskribapena.
  - Euskarabidearekin koordinatzeko prozedurak.

j) Adierazi nahi diren beste jakingarri guztiak, aurreko ataletan tokirik izan gabe ere proposatutako planteamenduari balio erantsia ekartzen badiote, baita adjudikatzeko irizpideen arabera behar diren datuak ere.

Adjudikaziodunak mendekotasun osoa eta espresa onartzen du baldintza-agirietako baldintza guztien aldera, barne dela berariaz eta bereziki konfidentzialtasunari dagokion guztia.

Orobat, adjudikazio irizpideen arabera baloratu daitezkeen datuak sartuko dira, kontuan har daitezen nahi bada.

C gutun-azala: “Formula bidez zenbatestekoak diren irizpideak”

Gutun-azal honetan adieraziko dira eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei buruzko eskaintza.
Lizitatzaile bakoitzak agiri honen III. eta IV. eranskinetan ezartzen diren ereduen arabera jasoko ditu eskaintza ekonomikoa eta formula bidez zenbatestekoak diren irizpideei buruzko eskaintza.

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatu beharko du pertsona edo entitate lizitatzaileak edo hura ordezkatzen duenak, eta ezin izanen du gainditu kontratu honetarako ezarritako gehieneko prezioa. Prezioak eurotan emanen dira eta ulertuko

da bertan barne hartzen direla zerga eta tasa aplikagarri guztiak, eta sortzen den zeinahi gastu.

Eskaintza ekonomikoak egokia izan behar du adjudikazioduna gai izan dadin kasuan kasuko sektoreko hitzarmenaren aplikaziotik heldu den kostuari aurre egiteko, gutxienez ere; aintzat harturiko soldaten orduko prezioak ezin izanen dira inolaz ere honako hauek baino apalagoak izan: orduko prezioak gehi hitzarmeneko orduko prezioari buruzko hobekuntzak gehi Gizarte Segurantzako kostuak baino.

Eskainitako prezioaren kalkuluak barne hartuko ditu jarduera egiteak ekarriko dituen ordainsari eta egiturazko kostu guztiak, besteak beste:

- Langileen ordainsariak. Gutxienez, Nafarroako bulego eta langelen sektorearen hitzarmen kolektiboan ezarritako soldata baldintzak bete beharko dira.
- Egiturazko gastuak, kontratu honen xedearekin zuzenki loturik daudenak.

## 11. DATUAK BABESTEA ETA KONFIDENTZIALTASUNA

Enpresa edo pertsona adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du isilpekotasunez eta lanbideko sekretua gordez jarduteko, laguntzaren xede diren datu eta agiriei dagokienez. Erabiltzen diren artxibo, base, memoria eta zerrendak oro Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren titulartasunekoak izanen dira. Ezin izanen dira erabili lan horrek ez dituen xedeetarako eta ezin izanen ditu erabili kontratatutako lanaz kanpoko inork.

Enpresa adjudikaziodunak ezin izanen ditu egiten dituen lanen agiriak eta emaitzak baliatu, ezta etorkizuneko lanerako erreferentzia edo oinarri gisa ere, ez badu Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuaren baimen berariazkoa eta idatzia lortzen horretarako. Baimen berariazkoa eta idatzia beharko du, orobat, ematen zaion informazioa beste entitate publiko nahiz pribatu bati helarazteko.

Gai honi dagokionez, bete beharko da Datu Pertsonalen Babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta lege organiko hori garatzeko erregelamendua onesten duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan xedatutakoa, bai eta horiek ordezten edo aldatzen dituen zeinahi beste arau.

## 12. ADJUDIKAZIO IRIZPIDEAK

Kontratuaren adjudikazioa eginen da kostu-eraginkortasun irizpideei (prezioa) zein irizpide kualitatiboei jarraikiz, adjudikazioa kalitatearen eta prezioaren arteko erlaziorik hoberena duen proposamenari emateko asmoz, halakotzat harturik puntu gehien duen eskaintza adjudikazio irizpide hauek aplikatuta:

**12.1. IRIZPIDE KUALITATIBOAK**: proiektuaren balio teknikoa, gehienez ere 45 puntu.

| | | |
|---|---|---|
| **a) Lantaldearen aurkezpena, curriculuma eta antzeko proiektuetan duen esperientzia.** | | **20** |
| Curriculuma | 5 | |
| Esperientzia antzeko proiektuetan | 15 | |
| **b) Eskaintzen dituen zerbitzuak. Lanen planteamendua, eta erabili beharreko metodologia eta teknikak. Jarduketen definizioa eta denboran banatzea. Aurkezturiko proposamenaren koherentzia, kontuan harturik helburuak eta horiek betetzeko proposaturiko jarduerak.** | | **15** |
| Lanen planteamendua, eta erabili beharreko metodologia eta teknikak. | 5 | |
| Jarduketen definizioa eta denboran banatzea. | 5 | |
| Aurkezturiko proposamenaren koherentzia, kontuan harturik helburuak eta horiek betetzeko proposaturiko jarduerak. | 5 | |
| **c) Proiektuaren antolaketa eta kudeaketa. Proiektua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko proposamenen bideragarritasuna eta egokitasuna. Aurkeztu beharreko produktuak.** | | **10** |
| Proiektua kontrolatzeko eta jarraipena egiteko proposamenen bideragarritasuna eta egokitasuna. | 5 | |
| Aurkeztu beharreko produktuak. | 5 | |

**12.2. FORMULA BIDEZ ZENBATESTEKOAK DIREN IRIZPIDEAK**: gehienez ere 55 puntu.

| | | |
|---|---|---|
| **a) Lantalde edo mahai tekniko gehigarriak:** | | **10** |
| 2,5 puntu, lantalde edo mahai tekniko gehigarri bakoitzeko (eskakizun direnak alde batera utzita); gehienez ere 10 puntu lortu arte. | | |
| **b) Gizarte irizpideak:** | | **10** |
| - Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa (18-30 urte). 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartzen den emakume bakoitzeko, gehienez ere 5 puntu izanik. | 5 | |
| - Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa. 2,5 puntu emanen dira lantaldean sartuz gero %33ko edo gehiagoko desgaitasuna duen pertsona bat, gehienez ere 5 puntu lortu arte. | 5 | |
| **c) Eskaintza ekonomikoa** | **35** | |

| | |
|---|---|
| Gehieneko puntuazioa eskaintza merkeenari emanen zaio. Gainerako eskaintzek formula hau aplikatu ondoan ateratzen den puntuazioa izanen dute: | |
| $\text{Puntuak} = \frac{\text{(Kontratuaren gehieneko aurrekontua – lizitatzailearen proposamen ekonomikoa) BEZik gabe}}{\text{(Kontratuaren gehieneko aurrekontua – Gutxieneko aurrekontua) BEZik gabe}} \times 35$ | |
| Eskaintza ekonomikoetako batek bat egiten badu lizitazioko gehieneko aurrekontuarekin, 0 puntu eskuratuko du. | |

**12.3. Eskaintza baxuegia:** Eskaintzak baxuegitzat joko dira lizitazioko gehieneko prezioarekiko beherapena % 25 baino gehiago bada; halakoetan, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 98. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

**12.4. Bi lizitatzailek edo gehiagok puntuazio bera lortzen dutenean,** berdinketa hausteko irizpide hauek hartuko dira kontuan, hurrenkera honetan: % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, baldin enpresako langileen % 3k, gutxienez, desgaitasunen bat baldin badute; halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, behin-behineko langileen ehunekorik txikiena duen enpresa, baldin langileen % 10 baino gehiago ez badira; eta halakorik ezean, edo berdinketak baldin badirau, genero arloko jardunbide egokiak egiten dituela frogatzen duen enpresa. Horretarako, unitate kudeatzaileak behar diren agiriak eskatuko dizkie enpresa ukituei, eta gutxienez bost egun naturaleko epea emanen die agiriok aurkezteko.

Aitzineko irizpide horiek aplikatu ondotik berdinketak irauten badu, zozketaren bidez hautsiko da.

## 13. PROPOSAMENAK BALORATZEAZ ARDURATZEN DEN ORGANOA

Kontratua kudeatzen duen unitateko teknikarien ardura izanen da lizitatzaileak onartzea, eskaintzak baloratzea eta adjudikazio proposamena egitea.

## 14. PROZEDURAREN GARAPENA

Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondoan, kontratua kudeatzen duen unitateak lizitatzaile bakoitzaren dokumentazio orokorra (A gutun-azalekoa) aztertuko du, eta egiaztatuko du erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu dela, sinatua eta osorik, agiri honekin batera doan ereduarekin bat.

Aurkeztutako dokumentazioa ez bada osoa edota zalantzaren bat sortzen bada, Lizitazioaren Plataformako jakinarazpenen modulua baliatuz eskatuko zaio eskaintza aurkeztu duenari dokumentazio hori osatzeko edo akatsak zuzentzeko, gutxienez bost egun naturaleko epean, errekerimendua jakinarazten den egunetik hasita. Izapide honetan aurkeztutako dokumentazioak inolaz ere ez ditu eskaintzaren baldintzak aldatzen ahal.

Aurkeztutako dokumentazio orokorra aztertuta, barne ekitaldi batean, B gutun-azaleko proiektu teknikoaren irizpide kualitatiboak aztertu, baloratu eta aplikatuko dira, eta Lizitazioaren Plataforman agerraraziko da enpresa lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren kalifikazioa, zehaztuta zein onartu diren eta zein ez, eta zergatik ez diren onartu, eta zein den irizpide kualitatiboen gainean unitate kudeatzaileak egindako balorazio teknikoaren emaitza.

Eskaintza kualitatiboen balorazioa egin eta gero, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko da, gutxienez 3 egun lehenago, non, noiz eta zein ordutan irekiko diren formula bidez zenbatestekoak diren eskaintzak gordetzen dituzten gutun-azalak, ondoren horiek kalifikatzeko.

## 15. ADJUDIKAZIOAREN PROPOSAMENA

Unitate kudeatzaileak adjudikazio-proposamen bat igorriko dio kontratazio organoari, lote bakoitzean puntuazio handiena duen proposamenaren aldekoa.

## 16. ADJUDIKAZIODUN GISA PROPOSATURIKO LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Behin adjudikazioaren proposamena modu elektronikoan jakinarazita, proposatutako lizitatzaileak edo lizitatzaileek 7 egun naturaleko epea izanen du edo dute dokumentazio hau aurkezteko Lizitazioaren Plataformaren bidez:

a) Nortasuna frogatzen duen agiria:

- Lizitatzailea pertsona fisikoa bada, nortasun agiri nazionala edo erregelamenduaren arabera hura ordezkatzen duen agiria.
- Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, eratzeko edo, halakorik bada, aldatzeko eskritura aurkeztu beharko da, dagokien erregistroan behar bezala inskribatuak.
- Proposamenak beste pertsona baten izenean aurkezten edo sinatzen dituztenek honako hauek aurkeztu beharko dituzte: ordezten den pertsonaren ahalorde askietsia eta nortasun agiri nazionala. Lizitatzailea pertsona juridikoa bada, ahalordea dagokion erregistroan behar bezala inskribaturik egon beharko da,

betebehar hori eskatzekoa denean aplikagarri zaion merkataritzari buruzko legeriaren arabera.

- Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzaileen Borondatezko Erregistroan (apirilaren 19ko 174/2004 Foru Dekretuaren bidez sortua) inskribatuta dauden enpresen kasuan, lizitatzaileak ez du bere nortasunari edo ordezkaritzari buruzko agiririk aurkeztu beharko, baldin eta aurkezten baditu erregistro horretan inskribatuta egotearen ziurtagiriaren kopia, modu elektronikoan Internet bidez eskuratua, eta horren indarraldiaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena.

b) Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuaren ziurtagiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere hiru hilabete lehenago egina, egiaztatzen duena lizitatzaileak Nafarroako Foru Ogasunarekiko zerga betebeharrak eguneratuak dituela.

c) Lizitatzaileak zerga Nafarroatik kanpora ordaintzen badu, aurreko puntuan aipatzen denaren antzeko ziurtagiria, Zerga Agentziak edo Foru Ogasunek egina.

d) Adjudikaziodunak Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak eguneraturik dituela egiaztatzen duen agiria, proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gehienez ere sei hilabete lehenago egina.

Behar diren agiriak epe horretan aurkeztu ezean, adjudikazioduna prozeduratik kanpo geldituko da, eta kontratuaren balio zenbatetsiaren %5eko penalizazioa ordaindu beharko du, bai eta kalte-ordain osagarria ere, portzentaje horren gainetik eragindako kalte eta galerengatik.

## 17. ADJUDIKAZIOA

Adjudikazioa Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzailearen ebazpen bidez eginen da, hura arituko baita Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren ordezkari. Adjudikazioaren berri emanen zaie lizitatzaile guztiei.

Adjudikazioaren eragina etenik geldituko da 10 egun naturaleko epean, adjudikazioaren jakinarazpena igortzen den egunetik hasita.

## 18. KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

Kontratua agiri administratibo batean formalizatuko da, adjudikazioaren etete epea bukatu ondoko 15 egun naturaleko epearen barnean. Administrazioak eta kontratistak formalizatuko dute kontratua.

## 19. KONTRATUA EGIKARITZEA

### 19.1. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Kontratua gai hauei buruz indarrean dauden lege, erregelamendu eta konbentzio mailetako xedapenen mende dago: fiskalitatea, Gizarte Segurantza, ingurumenaren babesa, enpleguaren babesa, genero-berdintasuna, sexuan oinarrituriko jazarpena edo sexu-jazarpena, lan-baldintzak, laneko arriskuen prebentzioa eta lan-arloko gainerako xedapenak.

Kontratua egikaritzearen ondorioz sortzen den dokumentazio guztian, adjudikaziodunak hizkera ez-sexista erabiliko du dokumentazioan eta materialetan, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun balioak, estereotipotik gabeko genero rolak eta zainketa lanetarako erantzunkidetasuna islatzen dituen irudia ibiliko du.

Kontratazio organoak egokitzat jotzen dituen neurriak hartzen ahalko ditu, bermatzeko kontratua egikaritzean kontratistak bete egiten dituela ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatzekoak diren betebeharrak, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 105. artikuluan xedatutakoarekin bat.

### 19.2. Lanak gainbegiratu eta ikuskatzea.

Kontratua kudeatzen duen unitateak kontratua nola egikaritzen den gainbegiratu, ikuskatu eta kontrolatuko du, eta hitzartutakoa zehatz-mehatz bete dadin behar diren jarraibideak ematen ahalko ditu.

Lanak egikarituko dira klausula hauei eta langile arduradunek idatziz emandako jarraibideei loturik. Kontratistak une oro men egin beharko die indarrean dagoen legeriak Administrazio kontratugileari kontratua interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko ematen dizkion ahalmenei.

Adjudikazioduna izanen da zerbitzua emateko hautatzen dituen langileen arduradun bakarra eta, beraz, haiek inola ere ez dute kontratu edo lan harremanik izanen Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuarekin.

Kontratistak edo haren mendekoek kontratua behar bezala betetzeko eragozpen edo traba izan daitezkeen egintzak edo omisioak egiten badituzte, kontratuaren unitate kudeatzaileak neurri zehatzak hartzeko eskatzen ahalko du, itundutakoa behar bezala egikaritzea lor dadin edo behar bezala egikaritzen segi dadin.

### 19.3. Ez-betetzeak.

Kontratistaren ez-betetzetzat joko dira honako jokabide hauek:

Ez-betetze arinak

A.1 Agiri honetan eskatutako langileak edo baliabide materialak kontratua egikaritzean erabiltzeko edo horretara atxikitzeko konpromisoa ez betetzea.

A.2 Lanak entregatzeko epea ez betetzea.

Ez-betetze astunak

B.1 Kontratua akatsekin egikaritzea, hots, baldintza teknikoetan eskatutako kalitate mailara iritsi gabe.

B.2 Azpikontrataziorako ezarritako baldintzak haustea.

B.3 Kontratua kudeatzen duen unitateak emandako aginduak ez betetzea, hura egikaritzeari dagozkion gaietan.

C. Ez-betetze oso astunak

C.1 Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea.

C.2 Lan edo gizarte arloko betebeharrak ez betetzea langileei dagokienez.

C.3 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko araudia ez betetzea.

**19.4 Zehapenak**

Kontratistaren ez-betetzeak sailkapen honen arabera zigortuko dira:

a) Ez-betetze arinak, adjudikazio zenbatekoaren %1 gehienez.

b) Ez-betetze astunak, adjudikazio zenbatekoaren %1etik %5eraino, kontuan hartuta kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

c) Ez-betetze oso astunak, adjudikazio zenbatekoaren %5etik %10eraino, kontuan hartuta kontratistaren arduragabekeriaren maila, ez-betetzeak eragindako kalteen garrantzi ekonomikoa edo berrerortzea.

Ez-betetze oso astunen ondoriozko zigorra kontratuaren zenbatekoaren %20 adinakoa izaten ahalko da, foru lege horren 66. artikuluan aurreikusitako kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean.

Kontratistari ezartzen ahal zaizkion zigorren gehieneko zenbateko osoa ez da adjudikazio zenbatekoaren %20 baino gehiago izanen. Ez-betetzeak eragindako zigorrak adjudikazio zenbatekoaren %10 baino handiagoak direnean hasten ahalko da kontratatzeko debekua deklaratzeko prozedura.

**19.5. Arriskua eta mentura.**

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturara gauzatuko da eta hura egikaritzen ari den bitartean gerta daitezkeen galera, matxura edo kalteak kontratistaren kontura izanen dira, batere ukatu gabe haietarako asegurua egiteko aukera.

**19.6. Kontratuaren interpretazioa.**

Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak interpretatzen ahalko du kontratua, bai eta hura betetzean sortzen diren zalantzak ebatzi ere. Ahalmen horren erabilera dokumentatu eginen da espediente baten bitartez, aurretiaz kontratistari entzunaldia emanda. Espedientean bidezko diren txosten tekniko eta juridikoak jasoko dira, eta, bidezkoa denean, Nafarroako Kontseiluak irizpena emanen du.

**19.7. Lizitatzaileen isilpeko agiri eta datuak.**

Lizitatzaileek adierazi beharko dute beren eskaintzetako zein agiri, agiri zati edo datu jotzen dituzten isilpekotzat, enpresaren estrategiaren parte direlako. Ezin izanen da proposamen guztia isilpekotzat jo.

Isilpekoak diren agirietan, argi eta garbi adierazi beharko da egoera hori, eta berariaz adierazi beharko da zer arrazoi dauden isilpekotasuna justifikatzeko.

**19.8. Kontratua egikaritzean eragindako kalte-galerak.**

Kontratistari egozten ahalko zaizkio kontratua egikaritzearen ondorioz jabetzaren nahiz hirugarrenen ondasun eta pertsonei eragiten zaizkien kalte eta galera guztiak. Foru Komunitateko Administrazioak bakarrik erantzunen du bere organoen berehalako eta zuzeneko aginduen ondoriozko kalte-galerengatik.

**19.9. Kontratistak lan araudia betetzea.**

Kontratuak errespetatu behar ditu lanari, Gizarte Segurantzari eta laneko osasun eta segurtasunari buruzko lege, araudi eta hitzarmen mailako xedapenak; batik bat, enpresa kontratistaren jarduerari dagokion sektoreko esparru apalena hartzen duen azken lan-hitzarmen kolektibo sektorialean ezarritako baldintzak.

**20. AZPIKONTRATAZIOA**

Kontratu honen xedea diren prestazioak azpikontratatu egin daitezke, salbu eta izaera erabat pertsonalekoak direnak. Kasu honetan, lizitatzaileek aurkeztu beharko dute, agiri honen II. eranskineko adierazpenarekin bat, aurreikusitako azpikontratisten zerrenda eta horietako bakoitzaren adierazpena, zeinean azaltzen duen ados dagoela kontratuaren baldintzekin eta ez dagoela sartua Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluko gorabeheretako bakarrean ere.

Ordainketa zuzenak egiten ahalko zaizkie azpikontratistei, egiaztatua gelditzen bada kontratista nagusiak ez dituela ordainketak egin hasieran finkaturiko baldintzetan.

**21. ORDAINTZEKO MODUA**

Lanen truke bi ordainketa eginen dira, biak egindako lanen faktura eta memoria aurkeztu ondoan.

Lehen ordainketa, % 50ekoa, 2020ko abenduan eginen da; eta bigarren ordainketa % 50ekoa, 2021eko apirilean eginen da.

Faktura horien edukiak bete beharko du Fakturazio betebeharrak arautzeko Erregelamendua onesten duen apirilaren 10eko 23/2013 Foru Dekretuan xedatutakoa.

**22. PREZIOAK BERRIKUSI ETA EGUNERATZEA**

Kontratu honetan ezin izanen dira prezioak berrikusi, horrela ezartzen baita Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 109. artikuluan.

**23. KONTRATUA ALDATZEA**

Kontratua formalizatu ondotik, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak interes publikoko arrazoiengatik bakarrik sartzen ahalko du aldaketarik kontratuko prestazioetan, funtsezko edukia ukitu gabe, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 109. eta ondoko artikuluetan ezarritako baldintza, kasu eta mugekin. Nolanahi ere, aldaketa guztien zenbateko pilatua ez da izanen kontratuaren adjudikazio prezioaren % 50 baino gehiago.

**24. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA ERREKURTSOAK**

Kontratuaren adjudikazioaz, interpretazioaz, aldaketaz eta ebazpenaz sortzen diren auzigaiak kontratazio organoak ebatziko ditu, eta haren ebazpenen aurka gora jotzeko

errekurtsoa aurkezten ahalko da, Nafarroako Gobernuari zuzendua, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Nafarroako Gobernuak hartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko da Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin ondoko egunetik hasita, hala xedatzen baitu jurisdikzio hori arautzen duen legeak, 46. artikuluan.

Nolanahi ere, lizitazioan interesa duten enpresek eta profesionalek, aukeran eta aurrekoen ordez, kontratazio publikoaren arloko erreklamazioa aurkezten ahalko dute kontratazio agirien aurka, izapide egintzen edo behin betiko egintzen aurka edo adjudikazio egintzen aurka, baldin eta egintza horien ondorioz lizitaziotik kanpo gelditzen badira edo haien xedeei kalte egiten bazaie.

Erreklamazioa Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegian aurkezten ahalko da, hamar eguneko epean, aurkaratutako egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, eta bakar-bakarrik funtsatzen ahalko da Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legeak 124. artikuluan aipatzen dituen arrazoietan.

**25. ARAUBIDE JURIDIKOA**

Baldintza multzo honetan ezarrita ez dagoen orotarako, aplikatuko dira Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarrita dauden xedapen komunak eta zerbitzu kontratuetako berariazkoak.

**I. ERANSKINA**

**ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, EUSKARABIDEAREKIN KONTRATATZEKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA ADIERAZTEKO**

Izen-abizenak: .....
NANa: .....
Bere izenean / honako hau ordezkatuz: ..... (..... IFK) (ezabatu behar ez dena).
Bere erantzukizunpean adierazten du:

1.) Berak edo ordezkatzen duen entitateak betetzen dituela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 14. artikuluan jarduteko, gaitasun juridikoa edukitzeko eta ordezkari izateko ezarritako baldintzak.

2.) Kontratazioa arautzen duten agiriak ezagutzen eta onartzen dituela eta horiek gauzatzeko hitza ematen duela, baldintzei hertsiki loturik.

3.) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 13. artikuluan ezarritako zergatietako batean sartuta.

4.) Eguneratuak dituela Gizarte Segurantzaren eta zerga arloko bere betebehar guztiak.

5.) Betetzen dituela kontratuaren xede diren jardueren esparruan eskaturiko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta negozio bolumena, eskura dauden azken hiru ekitaldietan, honako hau delarik:

| URTEA | ZENBATEKOA |
|---|---|
| 2017 | ..... euro |
| 2018 | ..... euro |
| 2019 | ..... euro |

6.) Betetzen dituela kontratuaren xede diren prestazioak gauzatzeko eskaturiko lege baldintzak.

7.) Betetzen dituela eskaturiko kaudimen tekniko eta profesionaleko baldintzak eta, ondorio horietarako, adierazten du ondoko zerbitzuak bete dituela:

| URTEA | GAIA | HARTZAILEA | ZENBATEKOA |
|---|---|---|---|
| 2017 | | | |
| 2018 | | | |
| 2019 | | | |

*Adierazpen honekin batera aurkezten dira aipaturiko zerbitzuen frogagiriak, lan horien hartzaile izan diren entitateek emanak.

8.) Nafarroako Foru Komunitateko edozein ordenatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen dela prozeduraren ondoriozko gorabehera guztietarako, legokiokeen jurisdikzio-foruari uko eginik.

9.) Helbide elektroniko hau ematen duela, prozeduraren zeinahi faserekin loturiko jakinarazpenak bide telematikoetatik egin ahal izateko: .....

10) Aurreikusten duela jarraian adierazten diren prestazioak azpikontratatzea. Ondorio horietarako, azpikontratisten adostasunaren adierazpenak atxikitzen dira (azpikontratazioa aurreikusten bada soilik).

| PRESTAZIOA | AZPIKONTRATISTA |
|---|---|
| | |
| | |
| | |

11.) Kontratura atxiki beharreko gutxieneko lantaldea:

| Titulua | Eginkizunak | Euskararen ezagutza-maila |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | | |
| | | | |

12.) Lantaldeko pertsona elebiduna, unibertsitate tituluduna, proiektuan buru eginen duena.

| Izen-deiturak | Titulua | Euskararen ezagutza-maila |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

Adierazpen honetan aipatzen diren inguruabarrak betetzen dira eskaintzak aurkezteko epearen bukaeran.

(Tokia, eguna eta sinadura)

**II. ERANSKINA**

**AZPIKONTRATISTEK BETE BEHARREKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA**

Izen-abizenak: .....

NANa: .....

Bere izenean / honako hau ordezkatuz: ..... (IFK: .....) (ezabatu behar ez dena),

ADIERAZTEN DU

1.) Ados dagoela .....-(a)ren adjudikazioa arautzen duten agirietan ezarritako kontratua egikaritzeko baldintzekin.

2.) Ez dagoela Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 22. artikuluan ezarritako zergatietako batean sartuta.

(Tokia, eguna eta sinadura)

**III. ERANSKINA**

**FORMULA BIDEZ ZENBATESTEKOAK DIREN IRIZPIDEAK**

| | |
|---|---|
| Lantalde edo mahai tekniko gehigarrien kopurua. | |
| Langabezian dauden emakume gazteen kontratazioa. | Izen-deiturak |
| | |
| | |
| | |
| | |
| | |
| Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa. | Izen-deiturak |
| | |
| | |

**IV. ERANSKINA**

**ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA**

Izena: Izen-abizenak: .....

IFZ: .....

Jakinarazpenetarako helbidea: .....

Bere izenean / honako hau ordezkatuz: ..... (IFZ: .....).

Nafarroako Foru Komunitatean euskararen dimentsio eta eragin ekonomikoa ebaluatuko duen eta, era berean, euskara sektore ekonomikoan sustatu eta indartuko duten neurriak aurkeztuko dituen azterketaren kontratazioa arautuko duen agiriaren berri izanik, hitzematen du zehatz-mehatz beteko dituela baldintza horietan ezarritakoa eta, orobat, eskaintza hau egiten du:

PREZIOA: _____ euro, BEZa barne.

.....(e)n, 2020ko .....aren .....(e)(a)n.

**V. ERANSKINA**

**TALDEKO PARTAIDETZARAKO EREDUA**

Izen-abizenak: …….

NAN/IFZ: ……..……..

Jakinarazpenetarako helbidea:

.....

.....

PK: .....

Herria: .....

Telefonoak: .....

Bere izenean / sozietate honen ordezkari gisara (dagokionaren arabera): ..... (IFZ: …….)

**Comentado [A3]:** Según proceda

Taldean elkarturik parte hartzen duten lizitatzaileek aurkezten badute eskaintza, adierazi kasu bakoitzean bidezkoa dena:

o Aldi baterako propio eratzen diren enpresari elkarteetan aurkezten dira.

□ Bai □ Ez

o Taldean elkarturik aurkezten dira. Kasu honetan, adierazi bakoitzaren partaidetza.

□ Bai □ Ez

Enpresaren izena: …… ⇒□Parte hartzea……..%

Enpresaren izena: …… ⇒□Parte hartzea……..%

(Erantzukizunpeko adierazpena faltsutzeak kontratatzeko debekua ekarriko du, hala xedatzen baitu Kontratuen Foru Legeak, 22.1.i) artikuluan).

(Tokia, eguna eta lizitatzailearen edo lizitatzaileen sinadura)